

GEORGES IBRAHIM ABDALLAH


Frantzia 29 urte preso daramatzen Parot libanotarra

Giza eskubideen aldeko eta ezkerreko hainbat talde eta elkartek deituta, martxoaren 16an manifestazioa egin zuten Baionako presondegiaren murruren inguruetan. Frantziak azken 29 urteotan preso daukan Georges Ibrahim Abdallah militante libanoarra askatzea eskatu zuten.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

PARISKO AUZITEGI antiterro-ristak 1987an bizi osorako espetxealdira kondenatu zuen Abdallahk segurtasuneko epea 1999an osatu zuen, eta geroztik baldintzapeko askatasunean irteteko eskubidea badu. Hala ere, agintariek behin eta berriro ukatu diote kaleratzea, azken aldian Rachida Dati ministroa zenean indarrean jarritako legediaren aitzakian. Espainian famatu egindako *Parot* doktrinarekin gertatutakoen antza badu, hein batean, Abdallahrekin jazotzen ari denak.

Libanoko iparraldean jaio zen Georges Ibrahim Abdallah 1951n, familia kristau batean. Oso gazterik sartu zen Palestinaren Askapenerako Fronte Popularrean (FPLP frantses sigletan). 1982an Israeliek Libano inbaditu zuen, eta "Bakea Galilean" operazioak eragin zituen 25.000 heriotza, 45.000 zauritu, Beirut suntsitzea, Sabra eta Xatila errefuxiatu kanpamenduetako



1999tik baldintzapeko askatasunean behar luke Abdallah militante libanoarrak.

sarraskiak, eta abar. Palestina eta Libanoko gerrillariak mundu osora zabaldu nahi izan zuten erantzuna. Frantziaren kasuan, Libanoko Indar Armatu Iraultzaileek (FARL frantsesez) bi hilketa oso berezi egin zituzten: Charles Ray AEBek Frantziako enbaxadan

zeukaten arduradun militarra eta Yakov Barsimantov Israelgo zerbitzu sekretuen –Mossad delakoaren– Frantziako arduraduna. Bitxikeria argigarri modura, 2012ko urtarrilean Abdallah askatzea eskatu zuen bera arrastatu zutenean DST zerbitzu sekretuetako buru zen Yves Bonnet orain diputatuak.

Abdallahen izenak Frantziako jendeei urte hartan Parisen gertatutako atentatuak dakarzkie burura. 1984an arrastatu zuten polizia frantsesek, atxilo aldi luze bezain polemikoa abiatuz. Baionako manifestaldirako deialdia egiten dutenen agirian irakurri daiteke Abdallahen arrastatze eta

kondena loturik daudela zerbitzu sekretu frantsesen manipulazioekin. Haren abokatu Jacques Vergès-ek, berri, aspaldi salatu zuen AEBetako Gobernuaren presioz daukatela oraindik espetxean. ■

